

BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak sarean **euskarazko apunteak eskainiko** ditu, euskarazko hezkuntza jasotzen dutenen benetako behar bati erantzuteko. Gure bezeroek gure zerbitzuaz mugikorretan, ordenagailuetan eta tabletetan gozatu ahal izango dute. Bertan, edozein erabiltzailek modu azkar eta erraz batean **apunteak euskaraz sortu, antolatu, partekatu eta deskargatzeko** aukera izango du.

Segurtasunari dagokionez, aplikazioaren edukia **birusengandik babestua eta eguneratua** egongo da. Bestalde, erabiltzaile bakoitzak bere kontua izango du, eta plataforman apunteak antolatu ahal izango ditu nahi duen irizpideren arabera.

Aplikazio hau erabiliz, **ikasle komunitateak** sortzen saiatuko gara, eta hauei esker, ikasleen arteko elkarriketak eta haien artean elkar ezagutza partekatuta sustatu nahi dugu.

Horrez gain, gure proiektua oso erakargarria izango da pizgarri batzuk eskainiko baititugu: gure zerbitzua sarri erabiltzen duenak **puntuak eta sariak** jasoko ditu, eta **"txanpon"** digital bat bezala erabiliko dira, honekin ekonomia moduko bat sortuko dugu plataforma barruan.

Zenbat eta txanpon gehiago lortu, erabiltzaileak apunteak deskargatzeko momentuan iragarki gutxiago ikusi beharko dira, hau da, txanponen bidezko ordainketek iragarkiak kentzeko aukera emango dute.

Gure helburua ikasleei laguntza eskaintzea da hauen ikasketetan apunteak hartu etaosatzearen prozesua arinduz.



<https://blog.laboralkutxa.com/es/la-oral-kutxa-una-entidad-comprometida-con-el-euskera>

Irudian Euskara hitza agertzen da.